

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Armentia menpeko toki erakundearen Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zati baten berrikuspena egiteko proiektua garatzeko irizpideak eta helburuak onestea

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko otsailaren 1ean egindako ohiko bilkuran:

1. Armentia menpeko toki erakundearen Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zati baten berrikuspena egiteko proiektua garatzeko irizpideak eta helburuak onestea, zeina Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzuak 2018ko abenduan landu baitzuen, dossierrean jaso bezala.

2. Hasierako onespena lortu arte –eta, edonola ere, gehienez ere urtebetez– etenda uztea hirigintza antolakuntza eta hori betearazteko prozedurak zein hirigintzarekin lotutako onartze-, baimen- eta lizentzia-emateak eremu hauetan:

Armentia 1 gauzatze-unitatea (UE ARM-1).

Armentia 2 gauzatze-unitatea (UE ARM-2).

11. industrialdeko 0283, 0306, 0316 eta 0284 lursailak.

3. Bertan behera uztea 11. industrialdeko 0316 lursailean hirigintzarekin lotutako onartze-, baimen- eta lizentzia-emateak eteteko agindua.

4. Erabaki honen berri ematea Armentia Kontseiluari eta jendaurreko erakustaldian parte hartu duten pertsona eta erakundeei.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai –Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25–, hilabetez.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 5ean

Alkate lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE

Eranskina

Irizpideak eta helburuak

Honako irizpide eta helburu hauek proposatu dira Plan Orokorren berrikuspenerako:

1. Jarraian aipatzen diren bi guneak finkatzea (Indarrean dagoen HAPOak dio horiek garatu behar direla, eta garatu dira dagoeneko), hiri-lurzoru finkatu bezala sailkatuz: Egun lurzoru urbanizagarrian dagoen Armentia Mendebaldea S-16 sektorea eta ARM-4 gauzatze-unitatea.

2. Ali errekaen alboko ibilbide berdea luzatzea erreka herria zeharkatzen duen zatira. Horretarako, Armentia 2 gauzatze-unitatea aldatuko dira, eten bihurtu, eta bestalde, bere lurzoruak espazio libreen sistema lokal edo espazio libreen sistema orokor gisa birkalifikatuko dira, eta gaur egun dituen eraikuntza-eskubideak unitate horretan dagoen beste lursail batera aldatu.

3. 16. sektoreko ekipamendurako lursailaren zati bat Armentia 2 gauzatze-unitate etenean sartzea, egun gune horrek dituen eraikuntza-eskubideak izan ditzan. Lursail hori Ostatu Emaileen kalera ematen duen muturrean egongo da.

4. Gaur egun berdeguneen sistema orokorra den Armentia basoaren sarrerako zuhaitzari berdeguneen sistema lokal kalifikazioa ematea, sektore horretan sistema lokalek hartzen duten azalera mantentzeko.

5. Armentia 1 gauzatze-unitatea ezabatu eta horren lurrak jarduketa zuzeneko hiri-lurzoruan sartzea. Lurzoru horien barruan, dagoeneko urbanizatuta dagoen parkea berdeguneen sistema lokal kalifikatuko da, industrialdeko 310 lursaila finkatuko da, eta 11. industrialdeko 282. lursailari eta 11. industrialdeko 283.ari (UE ARM-1-tik kanpo dago) hirugarren sektoreko kalifikazioa emango zaie. Horren ondorioz, bertan behera geratuko da bi lursail horien artean gune libre bat sortzeko plana eta, horren orde, 5 m-ko zabalerako gune libreen zerrenda bat sortuko da 11. Industrialdeko 282. lursailean, Ostatu Emaileen kalera ematen duen aldean.

6. Ekipamendu publikoko gune bat sortzea, lagatako lurretan, zehazki, egun 11. Industrialdeko 815,90 m²-ko azalera duen 316. lursailean dagoen eraikinaren kokalekuan; aplikatzeko den ordenantza aldatzea lursail horren hegoaldean dauden 3.392 m²-tan OR-10.2 izatetik OR-9.1 izatera igaro daitezen, eta bi guneak bereiziko dituen espazio libre bat sortzea. Espazio libre hori lagatzea izango da eta jabeek urbanizatu beharko dute. Helburu hori gauzatzeko baldintza bat bete beharko da lehenik: dokumentuari hasierako onospena eman baino lehen, hirigintza hitzarmen bat izapidetu beharko da, non jasoko den jabeek lursaila urbanizatzeko eta Udalari doan lagatzeko konpromisoa hartzen dutela.

7. Armentia Administrazio Kontseiluaren jabetzakoa den 11. Industrialdeko 306 lursailaren mugak erregularizatzea Dehesa kalearen alboan espazio libre bat sortzeko, eta lursaileko gainerako lurri aplikatu beharreko ordenantza aldatzea OR-10.2 izatetik OR-10.1 izatera igaro daitezen.

8. Lurzoruen kalifikazioak obra-lizentziak eman zirenean indarrean zeuden kalifikazioei egokitzea; benetan gauzatu diren urbanizatzeko lanei egin zaizkien lagapen eta trukeak doitzea, eta egiteke daude lagapenak gaur egungo beharrei doitzea.